

GIZON

EKIMENA
2022ko
MEMORIA

DUZ



BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



1. SARRERA	03
2. 2022AN EGINDAKO JARDUKETAK	04
2.1. WEBGUNEA	04
2.1.1. Elkarriketak	05
2.1.2. Sare sozialak	05
2.2. PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA	05
2.2.1. Gizonduz ekimenaren aurrez aurreko ikastaroak	07
2.2.2. <i>Online</i> ikastaroak	17
2.2.2.1. <i>online</i> sentsibilizazioa, 10 ordu	17
2.2.2.2. <i>online</i> prestakuntza, 25 ordu	19
2.2.2.3. <i>online</i> ikastaroa, 30 ordu	21
2.3. “GAZTEAK BERDINTASUNEAN” PROIEKTUA	22
2.4. “GIZON POLITIKARIAK BERDINTASUNAREN ALDE” PROIEKTUA	24
2.5. “GIZON HELDUAK BERDINTASUNAREN ALDE” PROIEKTUA	25
2.6. “GIZONOK ESAN ETA EGIN” KANPAINA	26
2.7. ACTIVIDADES DE SENSIBILIZACIÓN Y FORMACIÓN	27
2.8. AHOLKULARITZA ETA LANKIDETZAK	28
3. PROGRAMAREN HELBURUEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	29

1.0

Sarrera

Gizonduz ekimena Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindari bat da, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak sustatua, gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaz kontzientziatu daitezen eta horretan inplikatu daitezen eta parte har dezaten bultzatzeko. Hori guztia ikuspuntu feministatik, giza eskubideen ikuspegitik eta dibertsitatearen integrazioaren ikuspegitik.

Helburuak **Gizonduz ekimena sortzen duen agirian** zehazten dira, eta honako hauek dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintza-lanetan duten erantzukidetasuna handitzea.

Gizonduz ekimenaren barruan egindako jarduerak honako urte hauetako memorietan daude jasota: **2007-2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018, 2019, 2020 eta 2021.**

2.0

2022an egindako jarduketak

2.1. WEBGUNEA

2023an, Gizonduz ekimenari buruzko atala administratzen jarraitu da Emakunderen webgunean. Atal horretan, ekimenari buruzko informazio asko agertzen da euskarri ezberdinetan, eta atal hauetan banatuta: prestakuntza, elkarrizketak, kanpainak, gizon taldeak, bloga, materialak, Gazteak Berdintasunean, jardunaldiak eta abar.

2023an, Gizonduz ekimenaren web-orriak 5.436 bisita izan ditu guztira, horietatik 4.778 gaztelaniaz eta 658 euskaraz.



2.1.1. ELKARRIZKETAK

Atal honetan, honako elkarrizketa hauek egin dira:

- **Javier Lopex.** Pedagogoa eta maskulinitateetan aditua.
- **Miguel Ángel Arconada.** Literaturako Katedraduna, Instituto Jorge Manrique, Palencia. Berdintasunean, maskulinitateetan eta hezkidetzan aditua.

2.1.2. SARE SOZIALAK

Gizonduz ekimena **Facebook-en** dago 2009az geroztik. 2023an, 5.218 jarraitzaile izan zituen, eta batez beste 22.267 pertsonarengana iritsi zen, % 41,6 emakumeak eta % 58,4 gizonak. 2023an, 114 argitalpen egin ziren.


Gizonduz ekimena **Instagram**-en ere dago 2022az geroztik. 318 jarraitzaile ditu, 12.737 pertsona-ko batez besteko irismenarekin, % 64,8 emakumeak eta % 32,2 gizonak. 2023an, 46 argitalpen egin ziren.

Gizonduz ekimena **X-n** (lehen **Twitter**) -en ere dago. 2.254 jarraitzaile ditu, eta, 2011z geroztik, 7.272 txio idatzi dira guztira, horietako 152 2023an. Gizonduz ekimenaren profilak 392.094 tuit inpresio izan ditu guztira, 290.000 azken urtean, neurri handi batean martxoaren 19an sareetan egin zen kanpainaren ondorioz.

Halaber, Gizonduz ekimenak kontu bat du **YouTube**-n: berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako hitzaldien, lantegien eta iragarkien bideoak eta ikus-entzunezko materialak ikus daitezke. YouTube-ko Gizonduz ekimenaren orrialdean, 82 bideo daude, eta, 2023an, 2.015 aldiz ikusi dira bideo horiek; 2009an kontua sortu zenez geroztik, 27.373 ikustaldi izan dituzte bideoek.

2.2. PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA

2009ko martxoan jarri zen abian Gizonduz **ekimenaren sentsibilizazio- eta prestakuntza-programaren** lehen edizioa, eta 2023ko abendura arte 31.732 pertsonak hartu dute parte ikastaroetan. Ikastaroak, motaren arabera, honela banatzen dira:



- Gizonduz aurrez aurreko ikastaroak
- GB aurrez aurreko ikastaroak
- 60 Orduko online ikastaroa
- 10 Orduko online ikastaroa
- Neurrira egindako online ikastaroa
- 25 Orduko online ikastaroa
- 30 Orduko online ikastaroa
- Besteak

Ikastaro mota	Emakumeak	Gizonak	Ez-bitarra ¹	Ez du erantzun	Guztira
Gizonduz ekimenaren aurrez aurreko ikastaroak	7.039	11.722	92	112	18.965
Gazteak berdintasunean aurrez aurreko ikastaroak	1.677	3.258	37		4.972
Gizonak eremu politikoan proiektua ²		338			338
Gazte atzeritarren proiektua		44			44
60 Orduko <i>online</i> ikastaroa	602	393	0		995
10 Orduko <i>online</i> ikastaroa	1.020	733			1.753
Neurrira egindako <i>online</i> ikastaroa	723	1.509	23	27	2.282
25 Orduko <i>online</i> ikastaroa	1.613	730	2		2.345
30 Orduko <i>online</i> ikastaroa	30	8			38
GUZTIRA	12.704	18.735	154	139	31.732

2023an, 174 ikastaro egin ziren guztira, eta 3.807 pertsonak hartu zuen parte haietan: horietatik 2.304 gizonak (% 60,52), 1.487 emakumeak (% 39,05), 5 ez-bitarrak (% 0,13), eta 11k (% 0,29) ez zioten erantzun galdera horri.

¹ 2018az geroztik, parte-hartzaileen sexu edo genero identitateari dagokion autoidentifikaziotik abiatuta, neurtzeko bi kategoria berri gehitu dira: Ez-bitarra eta Ez du erantzun


² Parte-hartzaileak 2017az geroztik zenbatzen dira.

2.2.1. GIZONDUZ EKIMENAREN AURREZ AURREKO IKASTAROAK

2023an, aurrez aurreko 102 ikastaro egin ziren, horietatik 9 *webinar* formatoan, ikasleen *online* presentziarekin. Aurrez aurreko ikastaroen atal honetan sartu ditugu bai emandako orduak bai parte hartu duten ikasleak; izan ere, *online* ikastaroetan ez bezala, ikasleak etxetik edo enpresatik hartu dute parte zuzenean, eta ikastaroaren garapenean ere izan dute parte hartzeko aukera.

2009tik 2023ra, biak barne, aurrez aurreko 1.021 ikastaro egin dira (horietatik 102 2022an). Guztira, 18.965 pertsonak³ hartu dute parte: horietatik 11.722 gizonak (% 61,8), 7.039 emakumeak (% 37,11), 92 ez-bitarrak (% 0,48), eta 112k (% 0,59) ez zioten erantzun galdera horri.

Aurrez aurreko ikastaroetan izan den parte-hartzearen bilakaera⁴




³ Datu horietan ez dago barne hartuta Gazteak Berdintasunean programako ikasleen kopurua, zeina aurrerago baitago zehaztuta.

⁴ Grafiko honetan bi neurketa-kategoria berri txertatu dira, 2018an egindako parte-hartzaileen genero-identitatearen auto-identifikazioari dagokionez: Ez-bitarra eta Ez du erantzun

Ikastaro horietako ikasleak, sexuaren arabera berezita, era honetara daude banatuta

URTEA	Emakumeak	Gizonak	Ez-bitarra	Ez du erantzun	GUZTIRA
2009	241	512	-	-	753
2010	900	895	-	-	1.795
2011	638	821	-	-	1.459
2012	677	768	-	-	1.445
2013	389	628	-	-	1.017
2014	375	662	-	-	1.037
2015	354	467	-	-	821
2016	382	630	-	-	1.012
2017	362	464	-	-	826
2018	263	617	29	41	950
2019	462	1.205	32	34	1.733
2020	292	637	6	7	942
2021	579	1.000	22	11	1.612
2022	579	1.324	3	16	1.922
2023	546	1.092	0	3	1.641
GUZTIRA	7.039	11.722	92	112	18.965


Ikasleek iraupen-tipologia desberdinetako ikastaroetan parte hartu dute 2009tik 2023ra, biak barne. Ikasle horiek honela banatzen dira



2009tik 2023ra, ikasleen % 25,8k 3 ordura arteko aurrez aurreko ikastaroetan parte hartu du; ikasleen % 51,6k 4 eta 9 ordu bitarteko ikastaroetan; eta, azkenik, ikasleen % 22,6k, 10 ordutik gorakoetan. 2023ari dagokionez, ikasleen % 28,4k 3 ordura arteko aurrez aurreko ikastaroetan parte hartu dute. Bestalde, ikasleen % 71,6k 4 eta 9 ordu bitarteko ikastaroetan parte hartu du. Gainerako urteekin alderatuz, aurten ez da 10 ordu edo gehiagoko ikastarorik antolatu. Honek aurrez aurreko ikastaroetan izandako joera-aldaketa indartzen du; izan ere, 4 eta 9 ordu bitarteko ikastaroak ugaritu egin dira, eta 10 ordu edo gehiagoko ikastaroak murriztu. Hori programa esanguratsuak aurrez aurreko formatu izatetik formatu misto (*online* eta aurrez aurrekoa) izatera igarotzearen ondorio da. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren mendeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarena izan da kasu horietako bat. Aurreko urteetako lankidetzeta-programarekin jarraituz, 2023an prestakuntza mistoa izan da gehienbat: 10 orduko *online* prestakuntza, Moodle plataforman, eta 5 orduko aurrez aurreko prestakuntza. Horrela, aurreko urteko dedikazio osoari eusten zaio, pertsonako bost ordu handitu dena 2021eko datuekin alderatuta, nahiz eta modu berezian zenbatu ziren. XXXI. promozioiko 27 talderi eman zaizkie ikastaroak; guztira, ikasle baikoitzak aurrez aurreko 135 ordu eta *online* bidezko 10 ordu prestakuntza egin ditu.

IKASTAROAK 2023	Ordu-kopurua	Ordu guztien %	Ikasleak, guztira	Ikasle guztien %	Gizonak	Emakumeak	Ez du erantzun	Ez-bitarra
22 ikastaro 3 ordura arte	50,5	%11,57	466	%28,4	295	171	0	0
80 ikastaro 4 eta 9 ordu bitarte	386	%88,43	1.175	%71,6	797	375	3	0
0 ikastaro 10 ordu edo gehiagokoak	0	%0	0	%0	0	0	0	0
GUZTIRA: 102 ikastaro	436,5	%100	1.641	%100	1.092	546	3	0

Aurrez aurreko ikastaroetara bertaratzea 2023an



2023an, honako hau izan zen aurrez aurreko ikastaroen banaketa, entitate eskatzaileen arabera:

Enprekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaro kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Orduak, guztira
AAF INTERNATIONAL	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Bertako langileak	2	4	8
BEXEN MEDICAL	Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa	Bertako langileak	2	4	8
BIZKAIDENDAK	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Elkartutako enpresak	3	2	6
CEBEK	Gizonak, berdintasuna eta lan-mundua, ardurakidetasuna, lan-arriskuen prebentzioa eta sexu-jazarpena	Bazkideak	6	4	24
EMUN KOOPERATIBA	Gizonak, maskulinitateak eta enpresa-kultura	Enpresa-zuzendaritza	1	3	3
FAGOR	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Gizarte kontseilua	1	4	4
LOIRE-GESTAMP	Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioa	Bertako langileak	2	4	8
GRUPO AVANZA TRANSPORTE	Gizonak, berdintasuna, homofobia, laneko arriskuen prebentzioa, bide-hezkuntza eta istripuen prebentzioa	Bertako langileak	5	7	35
ORMAZABAL	Maskulinitateak eta sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena	Bertako langileak	2	4	8
POLMETASA	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Bertako langileak	5	4	20
TEKNIA	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Berdintasun Batzordea	2	4	8
ULMA	Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa	Bertako langileak	1	4	4
UNILEVER	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan eta sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena	Berdintasun Batzordea eta enpresa-zuzendaritza	4	2	8

Erakunde publikoekin elkarlanean egindako aurrez aurreko ikastaroak

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaro kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Orduak, guztira
Markina-Xemeingo Udala	Maskulinitateak eta berdintasuna	Teknikariak eta Brigadak	2	2	4
Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila	Gizonak, maskulinitateak, berdintasuna eta lan-arriskuak	Bertako langileak	2	5	10
Mungiako Udala	Gizonak, maskulinitateak eta sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena; erantzukidetasuna eta zaintza, gizon politikariak eta berdintasuna	Politikariak eta teknikariak	3	2	6
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	Maskulinitateak, arriskuak eta berdintasuna.	XXXI. promozioiko ikasleak	27	5	135
OSAKIDETZA	Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa; erantzukidetasuna eta zaintza; bortxa matxistak eta sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena	Bertako langileak	11	3 orduko 6,6 orduko 3 eta 4 orduko 2	44
ITSASMUSEUM BILBAO	Gizonak, maskulinitateak, berdintasuna eta lan-arriskuak	Bertako langileak	2	4	8
BIZAN	Zer gertatzen zaigu gizonoi zahartzean, eta nola daramagu?	Erabiltzaileak. 60 urtetik gorako gizonak.	2	7,5 orduko ikastaro bat 9 orduko ikastaro bat	16,5
OSALAN	Gizonak, maskulinitateak eta sexu-jazarpenaren zein sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioa.	Bertako langileak	3	4	12

Elkartekin eta beste hezkuntza-erakunde batzuekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaro kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Orduak, guztira
NICOLÁS LARBURU	Maskulinitateak eta esku-hartze soziala gizonekin	Ikasleak	2	4	8
BBK Helduentzako Unibertsitatea	Maskulinitateak; berdintasuna, erantzukidetasuna eta zaintza;	Erretiratuen elkarteak	1	3,5	3,5
LOIOLA ETXEA	Gizonak, maskulinitateak eta lan-arriskuen prebentzioa	Langileak	1	4	4
ALBOAN	Gizonak, maskulinitateak eta bortxa matxistaren prebentzioa; laneko arriskuen prebentzioa	Elkarteko langileak, irakasleak	2	4	8
ZE HAR	Gazteak, maskulinitateak eta berdintasuna.	Gazte atzerritar lagundu gabeak	1	8	8
BLUSA MUTIL ETA NESKEN ELKARTEA	Gizonak, maskulinitateak eta bortxa matxistaren prebentzioa	Blusa Mutil eta Nesken Elkarte	1	4	4
ERROAK-SARTU	Gizonak, maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa	Zentroaren erabiltzaileak	3	4	12
ZARAOBE INSTITUTUA	Gazteak, maskulinitateak eta berdintasuna	Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak	2	1,25	2,5
ATHLETIC CLUB DE BILBAO	Gizonak, maskulinitateak, berdintasuna eta kirol praktika.	Berdintasun Batzordea. Gazteen taldeko jokalariek	2	4 orduko ikastaro bat 3 orduko ikastaro bat	7

AURREZ AURREKO IKASTAROEN BALORAZIOAK:

Jarraian, aurrez aurreko ikastaroetako partaideek emandako balorazioen batez bestekoak ageri dira, puntu 1etik 6rako baremoaren gainean.

921 balorazio jaso dira: horietako 286 emakumeek egindakoak dira; 617 gizonak egindakoak; beste 1 ez-bitarra epigrafean jaso da, eta 17 pertsonak ez dio galdera horri erantzun. Kontuan izan behar da ikastaroa egiten duten elkarteek eta erakundeek jasotako ebaluazio-galdetegi zati bat formatu propiokoak direla; hori dela eta, zaila da bateratzea. Horregatik, ez daude hurrengo tauletan jasota.

Jasotako ebaluazio-galdetegi kopurua, sexuaren eta adinaren arabera

Ebaluazioak sexuaren eta adinaren arabera	16-24 urte	25 - 30 urte	31 - 54 urte	55 urte eta gehiago	EDE	Guztira
Emakumeak	27	69	150	36	4	286
Gizonak	92	167	289	61	8	617
Ez-bitarra				1		1
Ez du erantzun	1	1	10	1	4	17
GUZTIRA	120	237	449	99	16	921

Jasotako balorazioak (1etik 6ra)


	Emakumeak	Gizonak	Ez-bitarra	EDE	Orokorra
Ikastaroaren balorazio orokorra	5,3	5	5	5,2	5,1
Ikasgaiaren inguruan lehendik zenezkan ezagutzak	3,9	3,9	2	3,4	3,9
Ezagutzak areagotzea	4,9	4,8	4	4,8	4,8
Sentsibilizazioa areagotzea	5	4,8	5	4,8	4,8
Edukia	5,1	4,8	5	4,9	4,9
Hizlaria	5,5	5,3	6	5,1	5,4
Dinamizazioa	5,3	5,1	5	5,1	5,2
Taldearen partaidetza	5,1	5	5	5	5
Antolakuntza	5,2	5	4	5,3	5,1
Eremua	5,1	4,9	6	5	5
Erabilitako materialak	5,1	4,8	5	4,9	4,9
Baliagarria bititza pertsonalerako (%)	%94	%95	%100	%94	%95,75
Baliagarria bititza profesionalerako (%)	%95	%89	%100	%88	%93

Aurreko urteetan bezala, ikasleek modu positiboan baloratu dituzte erabilitako materialak eta erabilitako metodologia parte-hartzailea. 4tik beherako balio bakarra parte-hartzaileek prestakuntza-saioaren aurretik zuten ezagutzaren balorazioari dagokio.

Ikastaroen balorazio orokorrak aurreko urteetako antzekoak dira, eta balorazio horiek 5etik gora daude kategoriaz guztietan. Oro har, esan daiteke Gizonduz ekimenaren barruan eskaini diren aurreko aurreko ikastaroek bete egin dituztela bertaratutako ikasleen espektatibak, bai eta programarenak ere.

Ebaluazio-galdetegiko alderdien gainean egindako balorazioan, ez da desberdintasun nabarmenik ikusten sexuaren edo adinaren arabera.

Ikastaroak antolatzeaz arduratu diren erakundeentzako balorazioak (1etik 6ra)



Grafikoan ikus daitezkeen moduan, oso altuak izan dira ikastaroak antolatzeaz arduratu diren erakundeentzako balorazioak.

Honako hauek izan dira ondoen baloratutako alderdiak: «trebatzailearen profesionaltasuna» (5,75), «bizkortasuna kudeaketan» (5,78) eta «egutegi-erraztasuna» (5,78).

Honako hobekuntza hauek proposatu dira ikasleen balorazioetan nahiz erakunde antolatzaileen balorazioetan: prestakuntzak luzeagoak izatea, jorratutako gaietan sakontzea eta ikastaroek lanerako erremintak eskaintzea.

2.2.2. ONLINE IKASTAROAK

2.2.2.1. ONLINE SENTSIBILIZAZIOA, 10 ORDU

Ikastaro honetan, alderdi hauek landuko dira, besteak beste:

- Genero-desberdinkerien jatorria.
- Zer paper jokatzan duten sozializazioan sexuaren araberako rolerak eta estereotipoek.
- Maskulinitate-ereduak berrikustea.
- Zer rol betetzen duen gizonen bizitzan beste pertsonen eta norberaren zaintzak.
- Gizonen inplikazioa etxeko lanetan eta beste pertsonen zaintzan.
- Sozializazio sexistak gizonen ere eragiten dizkien genero-arazoak.
- Zer paper jokatzan duen indarkeriaren legitimazioak identitate maskulinoen eraikuntzan.

Online ikastaroa 2009an hasi zen ematen. Orduetik 2023ra, 1.753 lagunek (1.020 emakumek eta 733 gizonak) arrakastaz bukatu zuten ikastaroa.


Ikastaroa arrakastaz bukatu zuten pertsonak

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2009	42	64	106
2010	199	46	245
2011	53	18	71
2012	40	14	54
2013	30	20	50
2014	24	22	46
2015	18	25	43
2016	29	51	80
2017	21	36	57
2018	18	66	84
2019	23	59	82
2020	60	66	126
2021	138	79	217
2022	151	72	223
2023	174	95	269
Guztira	1.020	733	1.753

2023an, 269 pertsonak (174 emakume eta 95 gizon) arrakastaz amaitu zuen ikastaroa, hau da, 2022an baino 46 pertsona gehiagok. Ikastaroa egin duten gizonen proportzioa aurreko urtekoa baino handiagoa da: aurtun % 35,31 eta iaiz % 32,3.

2023an, 118 ebaluazio-galdetegi jaso ziren.

2023: Ikastaroaren gaineko balorazioa (1etik 6ra)



	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Baliagarria iruditzen zaizu zure bitzta pertsonalerako? BAI	115	%97,4	%97,5
Baliagarria iruditzen zaizu zure bitzta profesionalerako? BAI	112	%96,1	%92,5

Ikastaroaren (4,8) eta haren edukien (4,82) balorazioa oso positiboa izan da.

Azpimarratzekoa da ikastaroari buruzko gogobetetze-inkesta egin dutenen % 99ren arabera batezbeste, ikastaroa baliagarria izan dela bitzta pertsonalerako nahiz profesionalerako.

2.2.2.2. **ONLINE PRESTAKUNTZA, 25 ORDU**

"Maskulinitateak..Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak" izeneko ikastaroaren bitartez, ikasleek gaitasun teorikoak eta praktikoak garatzea lortu nahi da, gure gizartean maskulinitatea nola eraikitzen den aztertzeko. Hori guztia berdintasunaren ikuspegitik egiten da, ikasleek eskura ditzaten hala errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzeko ezagutzak nola errealitate hori ulertzea ahalbidetzen duten tresna metodologikoak. Gure gizarteetan dauden maskulinitate-adierazpen anitzak jorratzen dira, baita horrek emakumeei eta gizonari eragiten dizkien ondorioak ere. Aldi berean, emakumeen eta gizonen berdintasunerantz eman diren aurrerapausuak, dauden erresistentzia nagusiak eta agertu diren diskurtso sexista berriak aztertzen dira, indarkeria matxistari –gazteena ere bai–, haren kausei eta adierazpen ohikoenei buruzko azterketan sakonduz.


2023an, *online* ikastaro hau UPV-EHU Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (IVAP) lankidetzan egin da. Emakundek, halaber, 4 ikastaro antolatu ditu.

2023: Maskulinitateari buruzko 25 orduko online ikastaroa gainditu zuten pertsonak

Entitate antolatzailea	IKASTAROA	EMAKUMEA	GIZONAK	Ikastaroa gainditu duten ikasleak, GUZTIRA
UPV-EHU	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak.	14	1	15
UPV-EHU	Masculinidades. Hombres e igualdad. Retos y resistencias.	40	11	51
EMAKUNDE	Masculinidades. Hombres e igualdad. Retos y resistencias. (1. edizioa)	25	10	35
EMAKUNDE	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak. (1. edizioa)	8	7	15
EMAKUNDE	Masculinidades. Hombres e igualdad. Retos y resistencias. (2. edizioa)	42	39	81
EMAKUNDE	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak. (2. edizioa)	2	3	5
HAEE-IVAP	Masculinidades. Hombres e igualdad. Retos y resistencias.	35	9	44
HAEE-IVAP	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak.	13	9	22
	GUZTIRA	179	89	268

2023an, 25 orduko online ikastaroen 236 ebaluazio-galdetegi jaso ziren. Identitateari buruzko galderan, 106k “emakume” erantzun zuten, 55ek “gizon”, 6k “beste”, eta 71k ez zuten erantzun.

2023: Batez besteko balorazioak (1etik 10era)



	Guztira
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako? Bai	%95
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako? Bai	%89

Ikastaroaren balorazio globalaren batezbestekoa (10etik 8,7) oso positiboa da. Material teorikoei nahiz laguntza-materialei ere balorazio oso ona eman zaie (10etik 8,6).

Azpimarratzekoa da ikastaroari buruzko gogobetetze-inkesta egin dutenen % 95en arabera, ikastaroa baliagarria izan dela euren bizitza pertsonalerako, eta % 89ren arabera, bizitza profesionalerako ere bai.

2.2.2.3. **ONLINE IKASTAROA, 30 ORDU**

2023an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Prest Gara planarekin lankidetzan, online ikastaro bat jarri da abian, ikastegietan diharduten irakasleei eta hezkuntza-komunitate osoari zuzendua, izen honekin: *Maskulinitateak, indarkeria matxisten prebentzioa eta tratu ona lantzea hezkuntzaren esparruan*.

Prestakuntza honen xedea da gizon gazteen jokabide matxistak antzemateko tresnak ematea, prebentzian esku hartzeko, gizonengan aldaketa eraginez.

2023: 30 orduko online ikastaroa egin zuten pertsonak

Entitate antolatzailea	IKASTAROA	EMAKUMEAK	GIZONAK	Ikastaroa gainditu duten ikasleak, GUZTIRA
EMAKUNDE-PREST GARA	Maskulinitateak, indarkeria matxisten prebentzioa eta tratu ona lantzea hezkuntzaren esparruan	30	8	38

2023 ikasturteko lehen edizio horretan, 33 gogobetetze-inkesta jaso ziren. Identitateari buruzko galderan, 21ek “emakume” erantzun zuten, 6k “gizon”, 1ek “beste” erantzun zuen, eta 5ek ez zuten erantzun.

	Total
¿Crees que ha sido útil para tu vida personal? Sí	%91
¿Crees que ha sido útil para tu vida profesional? Sí	%88

Ikastaroaren balorazio globalaren batezbestekoa (10etik 7,8) oso positiboa da. Material teorikoen egokierari buruz egin den balorazioa ere oso positiboa izan da (10etik 8,4), baita laguntza-materialei buruz egindakoa ere (10etik 7,9). Interesgarria da, halaber, plataformari eta haren erabilerari buruzko balorazio positiboa azpimarratzea (10etik 8,6), *online* prestakuntzan aintzat hartu beharrekoa.

Azpimarratzekoa da ikastaroari buruzko gogobetetze-inkesta egin dutenen % 91ren arabera, ikastaroa baliagarria izan dela euren bizitza pertsonalerako, eta % 88ren arabera, bizitza profesionalerako. ere bai Azken puntu horrek garrantzi berezia du, izan ere, ikastaroa bereziki irakasleei eta ikastetxeetan diharduten hezkuntza-komunitateko beste profesional batzuei zuzenduta dago.

2.3. “GAZTEAK BERDINTASUNEAN” PROIEKTUA

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe eta institutuak (DBH3, DBH4 eta Batxilergoa), Lanbide Heziketako ikastetxeak (ahal dela, Oinarriko Lanbide Heziketako eta Erdi Mailako lehen maila) eta arautu gabeko beste irakaskuntza-zentro batzuetako nerabeei eta gazteei zuzendutako proiektua da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako kontzientziaketa, parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko helburuarekin.


Joan den ikasturtera arte bideo-joko bat erabili izan da, komiki interaktibo batek ordezkatu duena. Komiki horrek sei egoera irudikatzen dituen sei binetatan, eta bertako pertsonaien jarrerak sexismoari, homofobiari, indarkeriari, tratu onei, arrisku-jarrerei eta abarrei buruz hausnartzeko aukera ematen digute. Komikiaren eszena bakoitza inkesta batekin amaitzen da, gai bakoitzari dagozkion unitate didaktikoak lantzeko abiapuntu gisa balio duena.

2016tik 2023ra bitartean, guztira 51 ikastetxetan egin dira ikastaroak. Guztira, 4.962 ikaslek parte hartu dute: 1.677 neskek, 3.240 mutilek, 37 ez-bitarrek eta erantzun ez duten 15ek.


2023an zehar, prestakuntza eman da 14 ikastetxetan, hona hemen zerrenda:

IKASTETXEA	UDALERRIA
AZKUE IKASTOLA	Lekeitio (Bizkaia)
BERRIO-OTXOA INSTITUTUA	Bilbo (Bizkaia)
CALASANZ	Santurtzi (Bizkaia)
CIFP DON BOSCO LHII	Errenteria (Gizpuzkoa)
CIFP DON BOSCO LHII	Tolosa (Gizpuzkoa)
EAGI ERAIKUNTZA ESKOLA	Lasarte-Oria (Gizpuzkoa)
EASO POLITEKNIKOA	Donostia (Gizpuzkoa)
FRAISORO ESKOLA	Zizurkil (Gizpuzkoa)
FUNDACIÓN ADSIS	Vitoria-Gasteiz (Araba)
IES BIZARAIN BHI	Errenteria (Gizpuzkoa)
IES KANTAURI	Santurtzi (Bizkaia)
IES OÑATI BHI	Oñati (Gizpuzkoa)
IMH Fabrikazioaren Zentro Aurreratua	Elgoibar (Gizpuzkoa)
UNI EIBAR-ERMUA	Eibar (Gizpuzkoa)

Ikastetxe gutxiago izan bada ere, ikasleen kopuruak gora egin du apur bat, 2022an 1.057 eta 2023an 1.067. Horietatik, 386 neskek parte hartu dute, 661 mutilek, 5 ez-bitarrek, eta 8k ez diote galdera horri erantzun. Orotara, 214 prestakuntza-ordu eman dira, 60 talde-gelatako ikasleekin.




Prestakuntzak egin diren ikastetxeen balorazioek (1etik 6ra) erakusten dute ikastaroak hein handian gogobete dituela partaideak



Ikasleen 767 balorazio jaso dira komiki interaktiboari eta binetekin egindako lanari buruzko saioei dagokienez: mutilen 428 balorazio jaso dira, nesken 310, ez-bitarren 7, eta beste 2k ez dio erantzun galdera horri.

Tresna berriari, hots, komiki interaktiboari buruz ikasleek egin duten balorazioa (1etik 6ra) positiboa da.



2.4. “GIZON POLITIKARIAK BERDINTASUNAREN ALDE” PROIEKTUA

2017an, kargu politikoak dituzten gizonen zuzendutako ekimena jarri zen martxan, gizon horiek beren eragin-eremuan berdintasuna sustatzea lortzeko eta, bereziki, beste gizon batzuek kausa horrekin duten konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatzeko.

Horretarako, gizon politikarien bi talde sortu ziren: bata Eusko Jaurlaritzaren barruan, eta bestea udal-mailan, EUDELekin lankidetzan. Prestakuntza, gogoeta eta trukerako espazioak ziren, eta politikan lan egiten duten gizonen partaidetza eta inplikazioa indartzea zuten helburu, gizon horiek erreferenteak izan eta erabakiak hartzeko guneetan parte hartzen duten heinean.

Gizon politikariekin egindako lan hori jardunbide egoki gisa aurkeztu zen Europako Udalerrien eta Eskualdeen Biltzarrak (CEMR) 2019ko azaroaren 19an Bruselan antolatutako #InvolveMen nazioarteko mintegian.



Este video resume las ideas y objetivos de la primera fase de la experiencia.

Hombres políticos por la igualdad

Esperientzia positiboki baloratu ondoren, ekimenari jarraipena emateko asmoz, 2020aren hasieran bigarren faseari ekin zitzaion, gizon kargu publikodunei zuzendutako berdintasunerako gida-zirriborro batean oinarrituta. Plana egiteko 5 lan-saio egin ziren (2 Eusko Jaurlaritzako politikariek, 2 tokian tokiko politikariek eta saio bateratu bat), eta, guztira, 25 gizonek hartu zuten parte.

Halaber, 2019an antzeko prestakuntza-prozesuak egin ziren Aiarako eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilletako gizon politikariek.

Gainera, 2021ean, bi prestakuntza-ildo jarri ziren abian, administrazio autonomikoetan, foru- eta toki-administrazioetan, Eusko Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan postu politikoak betetzen dituzten gizon guztientzat irekiak. Alde batetik, solasaldiak egin ziren berdintasunean adituak diren pertsonekin, eta, bestetik, «prestakuntza-topaketak» direlakoak, hau da, aldizkako *online* saioak, bereziki gizon politikarientzat diseinatutako prestakuntza-pilula formatuan. 2021az geroztik, 9 prestakuntza-saio egin dira.

2023an, Emakundek antolatutako *Berdintasuna, Zientzia eta Teknologia, paradigma aldaketa baten alde* kongresuaren esparruan, urriaren 24an *online* topaketa bat egin zen gai honi buruz: “Las actitudes y violencias machistas en internet (Manosfera) y el papel de los hombres a favor de la igualdad en ese tipo de espacios”, maskulinitateetan eta esparru digitalean aditua den Alan Greigekin. Partidu politiko hauetako 38 politikariek parte hartu zuen, guztira: EAJ-PNV, EH BILDU, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IU.

Azpimarratzekoa da arlo honetan egindako lana jardunbide egokitzat jo dela Promundok Save the Children, Oxfam, MenEngage Alliance eta Nazio Batuen Fundazioaren laguntzarekin egindako *State of the World's fathers 2021* txostenean.

2.5. “GIZON HELDUAK BERDINTASUNAREN ALDE” PROIEKTUA

Proiektu pilotu hau adineko gizonekin esku-hartzeko genero-ikuspegia duen ildo berri bat irekitzeko diseinatu eta garatu da, adineko pertsonekin jarduteko estrategiekin lerrotatuta, gizonei begirakoa, zeinak barne hartzen baitu maskulinitateei eta zahartze-prozesuari buruzko hausnarketa, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta adineko gizonen bizi-kalitatea hobetzeko asmoz.

Hau da proiektuaren izenburua: *Zer gertatzen zaigu gizonoi zahartzean, eta nola daramagu?* Hauek dira hausnartu beharreko gai nagusiak: maskulinitatearen eraikuntzaren kontzientzia hartzea bizi-uneari dagokionez, enplegutik erretirorako trantsizioa eta denboraren erabilera berriak, erantzunkidetasuna eta zaintza, autozaintza eta osasuna, gizarte-harremanak eta bakardadea.

Ordu eta erdiko iraupeneko bost eta sei saioko bi prestakuntza-prozesu egin dituzte Vitoria-Gasteizko Udaleko BIZAN sareko helduentzako bi zentrotan. Lehenengoa Koroatzeko BIZAN Zentroan egin zen, ekainean (ordu eta erdiko 5 saio). Bertan, batezbeste 71 urte duten 12 gizonek parte hartu zuten. Bigarrena urria eta azaroa artean egin zen (ordu eta erdiko sei saio). Bertan, batezbeste 76 urte duten 7 gizonek parte hartu zuten.

Ondorioz, oso positiboa izan da parte-hartzaileen, erakundearen eta dinamizatzailearen balorazioa, eta parte-hartzea, konfiantza-giroa eta honelako espazioak sortzeko beharra nabarmendu dira.

2.6. “GIZONOK ESAN ETA EGIN” KANPAINA

2018an aurkeztutako **kanpaina** honen bidez, Emakunde jarraipena eman nahi dio 10 urtetan baino gehiagotan zehar Gizonduz ekimenaren bidez egin den lanari, hala, EAEko gizonek aurrerapauso bat gehiago eman dezaten eta beren egunerokotasunean ekintza jakin batzuk egiteko konpromisoa har dezaten berdintasunaren alde, hala nola erantzunkidetasunaren esparruan, zaintzan, indarkeria matxista desagerrarazteko orduan, berdintasun-ideiak hedatzean edo mezu eta jarrera sexistak salatzeke orduan.



Horretarako, aplikazio informatiko bat jarri da haien eskura eta, urrats gutxi batzuetan, gizonek test bat egin dezakete beren sexismoa autoebaluatzeko; era berean, zenbait konpromiso aukera ditzakete, eta, horiek praktikan jartzeko, hainbat baliabide eta jarraipen-sistema bat eskaintzen ditu aplikazioak berak.

Gizonen berdintasunaren alde duten inplikazioa ikusgarriago egiteko, interesa duten gizonen beren konpromisoa publiko egiteko aukera ematen du aplikazioak. 2023ra arte, 275 gizon sartu dira aplikazioan eta konpromiso pertsonalak hartu dituzte beren gain.



Bideo honek esperientziaren ideiak eta helburuak laburbiltzen ditu.

“Gizonok esan eta egin” kanpaina

2.7. ACTIVIDADES DE SENSIBILIZACIÓN Y FORMACIÓN

Gizonduz ekimena ezagutarazteko asmoari jarraituz, komunikabide ugartan izan ditu agerpenak Emakundek eta sentsibilizazio-jarduera ugartan parte hartu du, hala nola:

- Ekainaren 16an, “Hombres, igualdad, riesgos y seguridad laboral” txostenarekin parte hartu zen, OSALANek antolatutako “Actualización del marco jurídico y técnico de la prevención de riesgos laborales” izeneko EHUko udako ikastaroan.
- Maiatzaren 30ean, Azkoitiko udalak herrian antolatutako “Maskulinitateak, Erantzunkidetasuna eta zaintza-lanak” hitzaldian parte hartu zen.
- Martxoaren 10ean, “Trabajar con los hombres, las masculinidades, la igualdad, el buen trato y contra la violencia machista” txostenarekin parte hartu zen, Calatayudeko espetxeak antolatutako espetxe-ikasgeletako irakasleen mintegi autonomikoan.
- Uztailaren 26an, “Gizonek zer?” mahai-inguruan parte hartu zen, Hezkidetzeta eta Pedagogia Feministen II. Kongresuaren barnean, Donostian.
- Irailaren 14an, UPV-EHUren “Salud Mental con perspectiva de género. Trabajando masculinidades” udako ikastaroaren barnean, Bizkaiko Psikologoek Elkargo Ofizialak antolatutako “Contextualización del trabajo psicoterapéutico con masculinidades desde una perspectiva de género” mahai-inguruan parte hartu zen.
- Ekainaren 25ean, Peruko Piura eskualdean antolatutako “II Encuentro Nacional de Organizaciones Sociales por Masculinidades Igualitarias y Diversas” topaketetan, nazioarteko esperientzien inguruko online mahai-inguruan parte hartu zen.
- Urriaren 20an, Peruko Piura eskualdean antolatutako I. Nazioarteko Topaketetan “Hombres y políticas públicas: compromisos con la igualdad” parte hartu zen, online.
- Maskulinitate, genero eta berdintasunaren arloko unibertsitate-espezialistaren graduondoko titulu propioaren irakaskuntza jardun da (3. edizioa), Elxeko Miguel Hernández Unibertsitatean.

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak elkarlanean garatu duten Generoari, maskulinitateei eta gizarte-ekintzari buruzko unibertsitatearteko espezializazio-titularen (2. edizioa) irakaskuntzan jardun da.

2.8. AHOLKULARITZA ETA LANKIDETZAK

2023an, bai Gizonduz ekimenari buruz bai gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako beste gai batzuei buruz jaso diren kontsulta guztiei erantzun zaie, aurrez aurre, posta elektronikoz nahiz telefonoz.

Gainera, lankidetzak teknikoko akordio bat ezarri da "Dare to Care" (2023-2026) nazioarteko proiektuaren esparruan, gizonak eta mutikoak zaintzaren bidez berdintasunean inplikatzeke, NBE Emakumeak erakundeak gidatuta eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (eLankidetzak) finantzatuta. Lankidetzak teknikoak gazteekin, politikariekkin eta erlijio-liderrekin eta -erakundeekin lotutako lana bezalako gaiak jorratuko ditu.

3.0

Programaren helburuen jarraipena eta ebaluazioa

2016ko abenduan **Gizonduz ekimenaren prozesuari buruzko ebaluazioa eta emaitzak (2007-2015)** argitaratu ziren, baita horiei zegokien **betearazpen-laburpena** ere.

Atal honetan jasotako taulan, Gizonduz ekimenaren helburuen jarraipen- eta ebaluazio-adierazle batzuek 2023ra arte izandako bilakaera jasotzen da, eskuragarri dagoen informazioaren arabera.

Programaren lehenengo bi helburuei (1. *Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea*; eta 2. *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea*) dagozkien adierazleak emaitza-adierazleak dira, salbu 1.5 adierazlea (*Berdintasuna garrantzitsua dela ados edo oso ados dauden gizonen ehunekoa*), zeina inpaktu-adierazlea baita. Emaitza-adierazleek Gizonduz ekimenean egindako jarduera nagusietako batzuen ondorioak neurtzen dituzte, eta komeni da argitzea taulan badirela daturik ez duten gelaxka batzuk, aztertutako urteetan martxan jarri ez ziren jardueri buruzkoak baitira.

1.5 adierazlea eta programaren azken helburuari (3. *Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzukidetasuna handitzea*) dagozkion guztiak inpaktu-adierazleak dira, eta eragin nahi den gizarte-errealitatean gertatutako aldaketak neurtzen saiatzen dira. Ezin da jakin programak zenbaterainoko eragina izan duen haren bilakaeran eta, ziurrenik, eragin mugatua izango du; izan ere, programaren aukerak gainditzen dituzten egiturazko faktore askoren arabera helburu bati lotutako gizarte-aldaketaren adierazleak dira. Hala ere, programak helburu hori lortzen lagundu nahi du, eta horregatik jaso dira taulan.

Bestalde, inpaktu-adierazleetan jasotzen diren datu gehienak urtero egindakoak ez diren estatistika edo azterlanetatik datoz. Horregatik, beti ez datoz bat adierazitako urtearekin. Taulan jasotzen diren datuak aipatutako urte bakoitzean eskuragarri zeudenak dira.

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea.	2007	2010	2015	2020	2023
1.1 Gizonuz programako sentsibilizazio-ikastaro batean parte hartu duten gizonen kopurua (10 ordura arte).	-	1.066	4.297	6.151	9.513
1.2 «Gazteak Berdintasunean 2.0» programan parte hartu duten gizonen kopurua.	-	-	-	1.068	3.240
1.3 EAEko gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka delakoa sinatu duten gizonen kopurua. ⁵	-	10.230	10.289	10.381	10.381
1.4. «Gizonok esan eta egin» kanpainaren esparruan konpromiso pertsonalak sinatu dituzten gizonen kopurua.	-	-	-	244	275
1.5 Berdintasuna garrantzitsua den ideiarekin ados edo oso ados dauden gizonen ehunekoa. ⁶	%77	%77	%91	%99	%99
1.6 Aurrez aurreko ikastaroetara joaten diren gizonen sentsibilizazio-mailaren hazkunde batezbestekoa (1-6 eskala).	-	-	-	-	4,8
2. Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.	2007	2010	2015	2020	2023
2.2 Gizonuz ekimenaren esparruan aurrez aurreko edo online prestakuntza-ikastaro espezifiko batean parte hartu duten gizonen kopurua (10 ordu edo gehiagokoak edo aprobetxamendu-testa duten 8 ordukoak).	-	34	1.096	3.402	5.942
2.3. Gizonuz programaren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroak bizitza pertsonalerako baliagarritzat jotzen dituzten gizonen ehunekoa.	-	%96,80	%94,65	%92	%95
2.4. Gizonuz programaren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroak bizitza profesionalerako baliagarritzat jotzen dituzten gizonen ehunekoa.	-	%86,60	%89,75	%91,6	%89
2.5 Aurrez aurreko ikastaroetara joaten diren gizonen ezagutza-mailaren hazkunde batezbestekoa (1-6 eskala).	-	-	-	-	4,8
3. Gizonak ardurakideagoak izatea etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan.	2007	2010	2015	2020	2023
3.1 EAEn gizonen etxeko lanetarako eta zaintza-lanetarako egunean batez beste emandako denbora. ⁷	-	6 horas	5,6 horas.	6,6 horas	6,8 horas
3.2 EAEn gizonen egindako zaintza-lanen eta etxeko lanen ehunekoa. ⁸	%28,6	%28,6	%33,3	%32,8	%32,8
3.3. Gizonen ehunekoa, ahaideak zaintzeko eszedentzia baliatzen duten pertsona guztien barnean. ⁹	%21,1	%21,9	%17,8	%24,2	%24,1
3.4. Gizonen ehunekoa, seme-alabak zaintzeko eszedentzia baliatzen duten pertsona guztien barnean. ¹⁰	%5,2	%4,7	%6,7	%28,45	%14,4

⁵ 2010etik aurrera ez da sinadurak biltzeko ekintza publikorik egin.

⁶ Iturria: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko balioak. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. 2018


⁷ Iturria: *Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta*. Eustat. 2020.

⁸ Iturria: *Etxeko lanari buruzko kontu-satelitea*. Eustat. 2020.

⁹ Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren estatistika. 2020.

¹⁰ Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren estatistika. 2020.

Azkenik, grafiko bat dago jarraian, Gizonduz ekimenaren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroetan parte hartu duten gizonen kopuruaren bilakaera jasotzen duena.





Manuel Iradier, 36
01005 Vitoria-Gasteiz
945 01 67 00
emakunde.gizonduz@euskadi.eus